

2006ko abenduaren 12an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

1. - 2.006KO URRIAREN 31KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
2. - ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
3. -ZENBAIT OBREN AZTERKETA ETA ADJUDIKAZIOA
4. -LARDI AUZOKO DESJABETZAPENAREN HASIERA
5. - ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA
6. - ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
7. - ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA
8. -ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
9. -GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko abenduak 7.

ALKATEA

2.006KO abenduak 12

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.
Patxi Ormaetxea Otegi.
Miren Aburuza Alkorta.
Jabier Zabala Zabala.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Antton Artola Ibarguren

Bertaratu ez direnak:

IDAZKARIA:

Nerea Ubeda Etxarri.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko abenduaren hamabian, hogeita bat orduak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.006KO URRIAREN 31KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2006ko urriaren 31eko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

**BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinarazten du:

1.- ARAGI BULEGOAL S.L.-k eskatutako HIB 1.4 unitateko B eraikina egiteko eskatutako baimena da onartzen (203/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- ARAGI BULEGOAL S.L.-k eskatutako HIB 1.4 unitateko A eraikina egiteko eskatutako baimena ez da onartzen dokumentazio argigarria eskatzen zaion heinean(204/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- IÑAKI GOROSTIDI ASTIGARRAGA jaunari baimenik gabe egindako obrak legeztatzeko proiektua aurkez dezala eskatzen zaio (205/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- Ordezko Arauen berrikuspen lanak finantzatzeko diru laguntza eskaera luzatzen zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari (206/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- Erriberako Ordenazio aurrekina idazteko lanak finantzatzeko Gipuzkoako Aldundiari diru-laguntza eskatzen zaio (207/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- CARPINTERIA METALICA RANEDO S.L , aluminiozko aroztegia tailerra ezartzeko jarduera baimena ematen da, Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeko baldintzarekin (208/2006).

7.- JONE OLASAGASTI ARZALLUS andereari Andretegi baserriko bigarren pisuko etxebizitzarako ura hartzeko baimena ematen zaio (209/2006).

8.- ARAGI BULEGOAK S.L ri H.I.B 1.4. unitateko A lursailean eraikina egiteko aurkeztutako oinarritzko proiektua onartzen da (210/2006).

9.- 1.8 Hirigintza Proiektua hasera batez onartzen da (211/2006).

10.- JOSE MARIA AZCUEK eskaturiko kamio ondoko lursailen segregazio baimena onartzen da (212/2006).

HIRUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT OBREN AZTERKETA ETA ADJUDIKAZIOA

Ez dago eskaerarik

LAUGARREN PUNTUA:
LARDI AUZOKO DESJABETZAPENAREN HASIERA

Derrigorrezko Desjabetzeari buruzko Legearen 10.artikuluaren arabera, Adunado Udalak, 2006ko irailaren 12ko Udalbatzaren osoko bilkuran, Javier Santos Solis y D. José Ramón García Murga arkitekto teknikoek gauzatu eta dagokion Elkargo Ofizialean sendetsitako Adunako Lardi Auzoko zolaketa proiektua onartzea erabaki zuen,

Aurrekoa ikusirik, **ERABAKITZEN DA:**

LEHENENGOA: Derrigorrezko desjabetzpen legearen 17. Art eta Erregelamenduaren 10. artikuluen arabera , Desjabetzpen prozedimenduari hasera ematea onartzen da eta honekin batera, Adunako Lardi auzoko zolaketa gauzatzeko jabetu beharreko ondoren aipatzen diren ondasun eta eskubideen zerrenda hasera batez onartzea. Hau dena Lardi Auzoko zolaketa proiektuaren onarpenak inplizituki dakarren erabilera publikoaren adierazpenean oinarrituta.

Desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda

- **Orube zenbakia: 1**
- **Jabea:** Jesus Mari Gorostidi Astigarraga jauna
- **Helbidea:** Lardi Auzoa, Lardi etxea, 20150 ADUNA
- **Deskabetzapena:** 78m²
- **Erregistro Deskribapena:** : Elbarrena auzoko 38. zenbakidun Larrerdi baserriko hegoaldeko lehenengo zatiko jabetza. Hiru area eta hogeita hamar zentia area atalaurre dituen, iparraldean, bigarren loteko etxe bereko atalaurrearekin eta bide publiko nahiz Ballestain jabetzarekin mugatzen duena: ekialde eta mendebaldean bide publikoekin; eta hegoaldean, banatutako lursailarekin.
- **Desjabetu beharreko lursailaren deskribapena:** Lursaileko bi zati, bata, orubeko ekialdeko muga dagoen 13m²takoa, bestea, orubeko mendebaldeko muga dagoen 65m²takoa; hau guztia desjabetzpen proiektua eta obra proiektuan jasotzen den partzelarioa kontutan izanda, bien batuketa 78m² takoa delarik.
- **Izaera:** Landalurra
- **Erregistro Inskripzioa:** Adunako 12. liburua, 1236 tomoa, 1orria; 504 orubea, 1. inskribapena.

BIGARRENA: Erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda informazio publikora ezartzea, Gipuzkoako Aldizkari ofizialean publikatzen den hurrengo egunetik aurrera 15 eguneko epean jabe eta interesdunek aztertu eta alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, aipatu zerrendan aurki daitezkeen akatsak zuzenduak izan daitezzen.

**BOSTGARREN PUNTUA:
ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.**

1.- Aiztondo Bailarako Udalek dispertsioaren aurkako eta Euskal presoak Euskal Herrian egoteko duten eskubidea aldarrikatzen dute eta horretarako, azken urteotan egin den moduan abenduaren 31ean, arratsaldeko 7etan, Zizurkildik hasita eta Billabonan amaituko den manifestazio isilerako deia luzatzen dute bailarako herritarrei. Honekin batera, Euskal Herrian barrena hainbat gizarte eragileek adostutako Ibaetako ekimena-deklarazioa bezala ezagutua izan den manifestuarekin bat egiten dute. Adunako Udalak, bat egiten du aurkeztutako manifestuarekin.

**SEIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DIRULAGUNTZAN AZTERKETA.**

1.- Euskal Fondoko Sahara Koordinazio Unitateak, "Sahararen Aldeko Euskal Karabana" elkartasun kanpaina abiarazteko, udal aurrekontuetako giza laguntza ekimenetara bideratutako ekarpen ekonomikoak baliarazteko eskaera luzatzen du. Udalbatzak, gaia mahaiaren gainean uzten du hurrengo Udalbatzan aztertzeko.

2.-Adunako Herri eskolak hainbat hitzaldi antolatzeko dirulaguntza eskaera luzatzen du. Udalbatzak, aho batez, Hezkuntza afektibo sexualari buruzko 8 hitzaldi prestatzeko dirulaguntza onartzen du, honetarako, 304 eurotako laguntza bideratuz.

3.- Sortzen-lkasbatuaz elkarteak, Euskal Eskola publiko Berriaren aldeko jaia antolatzeko dirulaguntza eskaera luzatzen du. Udalbatzak, 165eurotako kantitatea bideratzea onartzen du.

4.- Gaindegia, Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako behategiak,"Euskal Herriko Datuen Talaia" proiektua gauzatzeko laguntza eskatzen du. Udalbatzak, 800 eurotako dirulaguntza ematea onartzen du.

**ZAZPIGARREN PUNTUA
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GARAPEN IRAUNKORREKO DEPARTAMENTUAK AURKEZTURIKO "TOLOSALDEKO UR HORNIDURA 5.FASEA ADUNAKO ADARRAREN 1.PROIEKTU ALDATUKO" OBREN 6.ZIURTAGIRIA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamenduarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena sinatu ondoren, Udal Batzar honek, aho-batez, aipatutako Departamenduak

igorritako Tolosaldeko ur hornidura 5.fasea: Adunako adarra proiektuaren 7.ziurtagiria onartu du, ziurtagiri honen zenbatekoa 1.797,78€takoa delarik.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu eta berrogeita bost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.